

ZU, ONDO ZAUDE?

Gaua zen eta liburategitik etxera zindoazen, ostegun buruzuri batean. Ateko giltza sartu eta etxera sartu zinen. Ez zenuen inor entzuten, beharbada musika entzungailuetan oso altu zenuelako zen; baina belarrietatik musika kendu ostean, ohartu zinen etxean ez zela inor. Afaria mahaian zenuen.

Sukaldera gerturatu eta konturatu zinen lanpara beharrian bonbilla bat zegoela zintzilik, kable luze eta ilun batek mantentzen zuena. Arraska platerrez beteta eta hozkailua irekita. Besteen plateretatik ez zen kea ateratzen; zure plateretik, aldiz, bai. Mingaina erretzeko moduko arrain-zopa zegoen afaltzeko, egun berezietan amak prestatzen zuen arrain-zopa plateretan. Aulkiak aterata zeuden, justu esertzera zoaztenean irekitzen dituzuen moduan. Baina sukaldean ez zegoen inor. Eseri egin zinen eta zure zopa jaten zenuen bitartean mugikorretik gurasoei deitzea erabaki zenuen. Ezer ez; ez zuen inork hartzen. Urduritu egin zinen eta zure buruari esan zenion: “seguru-aski kalera atera dira eta laster itzuliko dira, lasai.”

Gelara joan zinen jertsea uztera eta etxea miatzera. Sukaldera bueltan, azken deia egitea erabaki zenuen; baina zure platera hutsa eta mugikorra txikituta aurkitu zenituen mahai gainean. Sukaldeko leihoa irekita, bertatik sartzen zen haizeak mantela mugitzen zuen eta hozkailuko atea mugitu.

Segunduro mila gauza pasatzen ziren zure burutik. Mila ekintza. Mila beldur. Milaka. Bizilagunengana joatea erabaki zenuen. Igogailuko ispiluan, zure burua ikusi zenuen: begiak gorri, malkoen euriari heltzeko saiakera eginez. Bizilagunen atearen aurrean jarri eta txirrina jo zenuen. Ez zuen soinurik egiten eta atea jotzea erabaki zenuen. Ez zuen inork erantzuten. Hurrengo pisura igo zinen, oraingoan eskaileretatik korrika, arnasestuka. Ateak eta txirrinak jotzen zenituen, aldi berean zure oihuen oihartzuna zen nabari solairuetan. Behin baino gehiagotan lurrera erori zinen, zure hankek indarra galtzen zuten heinean. Zure ahotsa desagertuz zihoan azken solairura iritsi arte. Bat batean, zure hankek indarra berreskuratu zuten, baina beldur sentsazioagatik. Adrenalina. Igogailua hartu beharrian, eskaileretan behera korri egin zenuen, norbait zure atzetik sentituko bazenu bezala.

Etxeko atea ireki zenuen, barrura sartu eta atea itxi zenuen; baina ez zen guztiz ixten, norbaitek beste aldetik helduko balu bezala. Irekitzeko nahia eta beldurra zenuen aldi berean. Baina zure buruak ihes egitea eskatzen zizun. Arrapaladan zure ohean sartu zinen, maindire artean, dena ametsa zela pentsatu nahian. Ilea aurpegi aurrean zenuen eta eskuak zuri-zuriak maindirea gogor heltzen. Arnasestuka egon beharrian, arnasa saihesten saiatu zinen, belarriek den-dena ongi entzuteko eta edozein bazegoen ere, zu entzuna ez izateko. Eztarria sutan sentitu zenuen, malko guztiak hor elkartuta, atera nahi eta ezinean. Etsitzear zinen eta zure lehen beldur-malkoa masailean behera sentitu zenuen lehenengo, kokotxetik behera gero. Maindirean erori baino lehen zure amaren ahotsa entzun zenuen: “iritsi gara etxera!” Lasaitasuna sentitu beharko zenuela pentsatzen zenuen, baina ikaratuta zinen, beldurrez josita. Hala ere, sarrerako atea gerturatzea erabaki zenuen. Haize leun bat sentitu zenuen zure atzetik, izugarritzko hotzikara bizkarretik zabaldu zizuna, zure arnas saihestua eten zen arte.

Esku batek ahoa estali zizun eta komunean sartu zintuen. Bera zen: zure ama, beste inor

ez. Izututa, malkotan eta baxu hitz egiteko keinua egin ondoren esan zizun: “sentitzen dut horrela hartu izana, baina ahots hori ez nintzen ni. Bi orduro entzuten da esaldi hori etxeko sarreratik eta ez dakit nor dabilen honen atzean. Zu etorri baino lehen, zure anaiak ahotsa entzun du eta gerturatu egin da ea zer gertatzen zen ikustera. Gutxira, oihu altu bat entzun dut sarreratik; gerturatu eta anaiaren burua ikusi dut lurrian, eta gorputza ez dakit non Dagoen.

Zu, ondo zaude?”

Maialen Velasco
(A kategoria)